BAGILLA
4
Eguena
Bilbao, 1936

EUZKADI

ARPIDE-SANEURIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 ifko. iru ill.
Bilbao'atazkua ... 11,25 „ „
Idazki-itunmena ... 62,00 „ urtez
Atzerijetakuak ... 112,50 „ „

Beldayen itunduba

XIV urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.313 zenbakija

Gayak

¡AXIA ERETEN DABENA...!

Landarea azitik jayoten da.

Azijak, baña, beratariko landarea sortuko dau. Sagar-azija ereten dauanak, sagar-landareak ixango dauz. Iraka-azija ereten dauanak, ostera, iraka-landarea.

Eta axia ereten dauanak, bariz, ekatxa batuko dau, esakun zaretan idatzita daguana be orixe da-ta.

¿Ecija'n au ta ori jazo d i r a l a? ¿Yeste'n gixa-erailketa ixugarija baxen lotsagarija ixan dala?

Egija, ta egi aundija ixan be. Egi aundijak eta jazokun bakanak dirala be, baña, eztira aritzekuak, ezta jazo-eziñekotzat edestutekuak be.

Jazo ixan diran jazokun gusti oreik, azi-ereintzaliak erein ixan dabezan azijen alorteak baño eztira, ba.

Prieto'k, Gonzalez Peña'k, L a r g o Caballero'k eta orein antzeko beste asko eta askok España'rik geyenian erein ixan daben azija, iraka-azija ixan da; egijaren aurka daguan azi deungia; gixabidiarentzat erijotzea dakaran azi edenduna; gixarteko gorotua dan azi atsituba; ekatxa sortuten daben axe azija... Eta, era oretako azijetatik, irakea sortu biar; gixabidia ustelduko daben edena; gorotua biztuko daben gaiztokiko suba; gixabatza deuseztuko daben ekatxa...

¿Yeste'n gixonak-gixon erail dabezela...? ¿Ecija'n alderdikidiak alderdikidien aurka basapiztijen antzian jagita alkar erailten ibili ixan dirala...?

Ezta aritzekua. Goikua'ren ixena ukatuten daben gixakija, basapiztija baxen piztija da, ba. Lurera baño beste lekutara begiratuten eztaben gixona, lurpian bixi diran satorr itsuben kidekua. Goikua'ren amar agindubetatik aldenduta dabilan gixabatza, basamortuban bidiak eratuta nora-egin eztakijala galdu - gordian dabilan basapiztija...

Beraz, era oretako gixakijakandik itxaron leikena, Yeste'n eta Ecija'n jazo diran jazokun lotsagarijak dira.

Euzkadi, zorijonez, ondiñokaren beintzat, Ecija'tik uruntxu dago, b a t a Yeste'tik be.

Euzko-gixabatza, ondiño, Euzko-Alderdi Jeltzalia'ri eskarak, Ecija, Yeste ta abareko basapiztijen lexaraño jatsi barik aurkitzen da.

Jazokun oreik dirala-ta, emengo izpariingi batzuk be, esamesa aundijak darabilez. Uri onetako "El Pueblo Vasco" ta "La Gaceta del Norte" be, jazokun orei lotsagari eretxita dagoz...

Lotsagaritzat autortuta gusti be, baña, Euzkadi lotsakua be, lotsabako areikin batuta ikusi gura leukie... Euzkadi Araudi-jabe egitiari be, España'ren altzotik urunduta bixitia dala diñue, ba... Eta ori, España amari (?) iraña egitia dala, ta abar...

Izpariingi oneik, ulerkatxak dira, ixan, zer gura daben be etxake igarten-eta. Ecija'n, Yeste'n eta alde oretan jazoten diran basatikerijei lotsagari eretxita dagozala autortzen dabe. Eta ori ta gusti be, lotsa bako areikin batu gura gatubez, eta geuria eztan ama-ordiaren altzo liorian imiñi...

Izpariingi oreik, zentzunaren apurik ba'lebe, ta etxeko sendi-matasun pizkat ixan, idazten dabezan bakankerijak eleukiez idatziko.

Eta Bilbao'ko "El Pueblo Vasco" izpariingijaz asi garanezkero, u r e n g o itaune au egin biar dautsagu:

—Euzkerazko "kankalu" itza, gaztelerazko "majadero" ete da? Zure atzoko zenbakijan, ori irakuri gendun beñepein. Eta "El Pueblo Vasco" ixentzat artuta Bilbao'n argitaltzen dan izpariingijaren "kankalu" itza gaztelerazko ereaz, arituta geratu gintzazan.

Euzkeldun jatorak, España'ko bakalduna ixan zan XIII Albontsa'ri "kankaluba" detuten dautsoenian, "El Pueblo Vasco„'k diñuan lez, "majadero" esateko eztautsoe esaten, "patas-largas" edo onako gauzaren bat esateko baño. "Kankalu" itza orixe da ixan be: "hombre torpe e irregular; hombrón. gandul".

Bilbao'ko "El Pueblo Vasco", XIII Albotsa zanaren adizkidiak, baña, España'ko bakalduna ta Euzkadi'ren erail tzalia ixan zan anka-luze arentzat, "kankalu" ixena baño "majadero" ixena egokijagua dala-edo uste dau. Eta antza dagonez, "majadero" detutia gura dau.

Izpariingi oren gurarija ori ba-da, berak detu dagijola gura ba-dau, guk geure izkuntza edera gaztela kutsuz ezaindu baño lenago, euzkeraederian, "kankalu" detuko dautsagu-ta.

JUDAREN ZURTASUNA

1870'gko. urtian, Woerth'ko gudaketea amatu-ondoren, Doixteri'ko bakaldun-burestunaren jabegaya zan Perderika bakaldungaya, gudari zauritubak ikertuten juan zan.

Zaurituben artian, azkenengo gudaketean galenduben agertu ixan zan judadar bat aurkitzen zan. Zauri-estalkiz osuan estalduta zala, ordubantxe lo-zoruari emonda eguan. Eta bakaldungaya, ain zuzen be, ordubantxe aren oe-aureratu, ta bere aurian belaunbiko jari yakan, eta olantxe esan:

—Ene semia, zuk guda-ordain bat irabazi dozu. ¿Zer gura ete-zenduke? ¿Eun zoro ala burdiñezko gurutzea?

Bakaldungeyaren itaunetara, lozoruan aurkitzen zan gudari zauritubak, begi bat ertzedegita, intziri-antzo itaune au egin eutsan:

—¿Burnizko gurutzearen a l d i ñ a, ¿zenbat da?

—Iru zororena...inguru, gitxi gora-bera...bakaldungeyak bareka erantzun eutsan.

—Orduban, jauna...zauritubak erantzun eutsan—; eun zororen lekuban, larogeta amasaspi zoro emongo daustazuz. Eta ganerantzekua, burdiñezko gurutzeaz ordainduko daustazu.

Judar gudari aren zurtasunaz, Perderika bakaldungeya, zurtz-eginda geratu zan. Iru zororen aldiña baño ezeukan gurutzea, ezetsi-egin ebalakuan esan eutsan, ba, saneuri bakan a. Baña okeř urten eutsan, judaren salerosketarako zurtasunak, bakaldungeyaren atzipe-itzak deuestuta laga ebazan-eta.

Judarak salerosketa gauzetarako dauken zurtasuna, bakaldungeyak euren lateri-gauzetarako ba'lebe, ikusten diran beste guda ta gudari zauritu eleitzatekez ikusiko. ¡Ez orixe...!

Uribitarte'tar Ibon.

ARRASATE

APAIZGAIAK.—Asteeroko idazki au egitera jartzean, or ikusten det Gazteiz'tik datoren berebil aundia, dana apaizgaiez beterik. Jetxi dira mundrautarak arpegi alai askoaz, udako oporaldia beren gurasoen ondoan ederki igarotzeko pozean. Goizean etoriak dira Saturaran'dik len gure eskolako izandako mutil zintzoak. Nota onak ekari omen ditue guziak eta bejondeiela, ta ongi etori. Batek datoren urtean omen du meza beria.

ABERI-EGUNA....Oso egun edera izan da au abertzaleontzat. Larunbatean emakumeari egin zioten omenaz asi zan eta igandean bukatu V Aberi-Egun aundia. Baiño goazen egitaraura. Euskeraz ta erderaz "Biona" irarkolan apain aterata zabaldu zan eri guzian. Ez det ondo esan euskeraz ta erderaz; erderaz ta euskeraz zegoan ba, Castilla'ko izkuntza aurretik dala, gero barenean antxe gure euskera gaixoa ere, antxe dagoala esateko edo, iñork deskuidoz erderazkoaren ondoren irakuri nai balu ere. Noiz asiko ote gera euskotarok euskaldun izaten, oso-osoan? Ortarako ez da Estatuto bearik.

Emakumearen omenean itzaldi sutsu edera egin zuan "Altzeta„'k, oi duanez egi galantak esanez. Igande goizean, Euskadi'ko ikuriña aurretik zuela ikusteko ibilaldia egin zuen danbolin-soiñuan Batzokitik Kontzeptioko elizara guziak alkarekin, an meza entzun eta jaunartzera. Ezpatadantzariak ederki ematen zuen aldare-inguruan.

Gero amaiketako pelota - jokaldia Orobengoa ta Egidazu'k irabazi, besteak 18'an utzita.

Bazkalondoen jai politak izan ziran pelotatokian, baiña guzien gain, gure ezpatadantzari berdingabeak; gure ikas tolako mutikoak dira geienak. Ango txalo beroen artean artu gureak ere, ta ez epelenak. Oien irakasle Luki Berezibar'ek ere merezi ditu berezi-bereziak.

Gero eromeri aundiaz bukatu zan aurtengo Aberi-Eguna.

OSTIKOKETA. — Debarak jokalari onak dirala erakutsi zuen Maalan ere igandean. Irabazten egon ziran ba jokaldi guzian, azkenean tanto bategatik gureak gelditu beziran ere garaile. 4—3. Gorroiño-Barutia.

ZINEA. — Abadetxeko zine politak igandean zuan atzena. Ea beriz noiz asten dan.

Ikasle.

Euzkotar Umien Aldez

Irri ta parreak

"Asperkeri aztunen besoetan gogo txikiak negar dagi, bizitza lorez inguratu nai ezik."—PAUL VERLAINE. (Abattement).

Aurerako lanean nionari jaraituaz esan bear det zigora esari zaion umeak bai duala zioa negar egiteko, eta negar egiten utzi egin bear zaiola, bere biotza atsedendu edo nasaitu dedin.

Baña bere aitak ez du ori uste ordea; lan asko eginda nekatu zamara etori da etxera, eta ixiltzeko agindu aren umeak negar dagialako, jaiki bere lekutik, juan umearengana, eskuak arpegitik kendu, umea argitara begira ipiñi eta iri-barez dio: ...Begira, begira Andonitxuri, nolako mutil edera dagoan malkoak eta muskirak alkar jota. Ori dek, ori arpegi edera daukakana. Ikusgaria ago eu, arpegi eder orekin a, a, aaa, a, aaa, negarez.

Au entzutean alatza edo miraria izango da beste umeak parez ez aztea. Izan leike Andonitxo bat batera ixiltzea bere gogoak egin duan indar aundi baten bitartez, baña ez daki bere aitak umearen biotzean egin duan kaltea, umearen biotzean sortu duan ekaitz gogora.

Umea, bearizanik gabe, geyegikeriz apaldu du bere aitak. eta gizajoak bere negar malko samiñari zuruzt eginda, aitaren aurretik ixil-ixiliik alde egingo du. Baña etxeko beste sokondo basteren batean egingo ditu negar garatzak, orain-dik iñoiz egin ez dituan bezelako negarak.

Len, negar egiteko zioa kanpotik zetorkion, jantokiko maira otaratxo politean atera dituzten Kerex ayetatik, baña oraingo negar egin bear au bere barnetik datorkio, bere biotzaren erdi-erdian sortu zaio, bere izatea ta bere gogoa ankerkeriz apaldu dituztelako.

Eta kanpoko batek, arotz batek apaldu ba'zituan ezer ez edo gaitz erdi. Baña bere aitak berari ori egitea...!

Andonitxo'k gauza abek danak ez ditu pentzatzen, ezin pentzatu leizazkealako, baña bai ditu nabaitzen bere barnetxoan.

Au egitea, umearen biotzean gorotoa sortu erasotzeko era erarik onena da, umearen gogo guria gogortu eta garastutzeko era.

Umeari ajolagabekeria erakusteko ere oso era ona da au. Umeak zigoragaz baño naigabe aundiagoa artu du aitaren iri-pare eta destañagaz, eta aurerantzian bigaren naigabe au auferatzeko alegiñak egitea bidezko gauza irudituko zaio.

Eta bere gurasoak edo nagusiak zigortzen dutenean: "Gauř beintzat al ba 'diat ez natxiak negarik egitera" pentzatuko du. Urengoan beriz: "Gauř, negarik egin gabe erar igaroko nauk". Urengoan ordea: "Aitak zigortu egin naua-la? Eta zer? Ardura ziak ba neri".

Beste gauza bat ere esan bearean naiz. Gauza gustiai aitzakiak ateratzeko oitura, iñoren lan guztiak begi zorotzakaz ikusi eta akatz danak leyar aundiaren bitartez epaitzeko oitura duten gizon kaxkarak; pare kasai egiteak baño mukeř egoteak atzegin aundiagoa eman oi dioten gizon biotz txikidunok, izan leike txikitan, euren aurtzaroan onelako azieraren azpian egonak diralako euren izaera era oretara tayotua izatea. Iri-pareak estutu ta mukertu egiten baitu biotza!

Zigoraren azpian dagoan umeari ez zaio iñoiz parerik eta destañarik egin bear. Alderantzira. Ezagutu dezala, umeak bere gurasoak naigabez beterik zigortu dutela eta zigorik barkatzen ez dioten aren eurak ere umearekin batean samintzen dirala.

ARITOKIETA.

Euzkerearen edestira

VII

NAPAROA'KO BAKALDUNAK ETA EUZKEREA: Castilla'ko bakaldunak agiriak erderaz, gazteleraz, idazten ekin ba-eben, Naparoa'ko bakaldunak eta lekaideak zergatik ezeben latera-izkuntzea baztartu eta euzkeraz idazten asi?

Izan be, gastelera, bestelako erdereak lez, lateragandik sortuak da. Ori zala-ta, bearekoa izan zan latera ta izkera baria, lateragandik sortutako eri-izkerea batera erabiltzea, eri-izkereak latera baztartu eban arte.

Euzkadi'ko lekaidetxetan, aldi atan, yakintzak argi andi egiten eban. Lekaidetxetako gizonak euzkerea erabiltzeko gogoa izan aren, euzkeraz idazten asi ete-zeikien? Euren aurretik euzkeraz idatziriko gauzarik ez eben ezagutzen; ganera, euzkereak ez eukan baranoko izkera guztiekaz zer ikusirik. Zer egingo eben, ba, agiriak euzkeraz idazteko alan gura izan ba-eben be?

Gatxaren sustrayak atzeragotik etozan: Eleiza Katolikoari dana zor dautsagu euzkotarak: siñismena eta katoliko-yakintza. Euzko-yakintzari begira, baña, kalte egin dauskula esan bear (1). Yakiña da, aldi atan, kalte egiten euskula oartu be ezin egin eikian Eleizeak. Oraingo aldian kalte areik ordaindu al izateko abagunerik asko ba'dau Eleizeak berak be. Alde batetik gatxa ezagutu egin dogu guztiok. Bestaldetik, Eleizeak berak be antxiñako urtietan izan dauzan kateak apurtu ebazan eta ezta aspaldi bateko bakaldunen mendeko.

Dana dala, lekaidetxeak baño be eru geyago izan dabe bestelako askok. Baita Naparoa'ko bakaldunak baño geyago be. Asko oreik, baña, erudun ba-dira be eztabe euren erua ezagututen. Amasaspigaren gizaldian be euzkerea baztartzeko ziorik ez eukenak (euren gurasoakandik ikasi ebelako, euren arteko geyenak beste izkuntzarik ez ekielako) irañez bete eben Bizkai'ko batzaretan. Batzar oreitan oidezkariren bat batzaretik jaurtitzeraño eldu ziran erderarik ez ekialako. Bizkaitar areik be Naparoa'ko bakalduna menderatu eban indarak berak eukazan menderatuta. Ez areik ez oneik, iñok be ez ekian euzkerea abendearen ezaugaririk bikañena zanik eta abendea zer zan be aztuta euken. (2)

Gaurkoak, baña, ba'dakigu ori dana. Ba'dakigu Europa guztiko abendak euren izkuntza-alde lanean diarduela, eta izkuntza-alde yardunaz abenda-gogo alde egiten dabela. Oregatik da gure erantzupena garantzitsuagoa. Gure asabak ez ekien zer zan izkuntzea eri baten bizitzarako. Alan da be, baña, euzkerea emon euskuen ondorengo. Eta guk, benetan aberia maite dogula azaldu gura ba'dogu, egiz eta benetan lan egin bear dogu euzkerearen alde. Alde guztietatik euzkerearen aurka yaiki dira gizonak eta jazokunak. Oregatik da bearago gure ardurea ta lana. Ez euzkereari eusteko bakarik, euzkerea indartu ta zabaltzeko baño.

Euzkadi'n bizi diranen erdiak be eztabe euzkeraz itz egiten ez ezagutzen. Euzkadi'ko lura iru zati egin ezkero, zati bitan euzkerarik ezta entzuten. Eta irugaren zatian bertan, be, euzkeraz egiten ba-da, erdereak be ba 'dauz bere-bere diran tokiak eta baranoko euzkel-eriak erdel-eri bigurtzeko indara dutentokiak. Ikusi daigun, adibidez bakarik, Ibaizabal ibaean (Bizkaya) jazoten dana, Bilbao'tik Durango'ra bidean. Begoña, Etxebari, Basauri, Zaratamo, Galdakano, Bedia (emen ez ainbestean), Lemoa, Larrabetzu, Larrabetzu, Lemoa, Durango'n milaka euzkerarik ikasi eztaben umeen ondorengo au guraso erdeldunen ondorengo ruz, oneik be eri askotan ugaritzen, guraso euzkeldunen ondorengo ruz baño. Ora ba: gizaldi batean karik euzkereak izugarizko galera dau Ibaizabal ibar onetan.

Orelako zerbait jazoten da Durango'ko bieta'tik Bermeo'ra bidean be. 'ko eri geyenetatik entzun daitezke gara.

MIKEL

(1) Ortueta yaunak Eleizaren diñuana eztago argiegi. Batek dakigu kalte egin aren erudun izan bazan legike kalte ori. Ori yakin gurasoak ke. Eleizea euzkera-galtze orretan dun izan dan ala ez. Eraza da ikusi ren lepo yartzea au ta besteaz. Eleiz-gizonak, geyenera be, berak euzkotarak lez yokatu eben arazo tan. Euzkotarak aberi-ezagutza duta euken; eleiz-gizonak be, euzkotarak ziranetan, aberi - ezagutza izango eben. Ez ete da ba ezagutza koitza bere aroaren seme dala? eleiz-gizonak bakarik egin bazan besteak egiten eztabena?

Eta batez be, Eleizeak ondo kalte egin ba-dautsa aldien batean egin dau euzkerearen alde eta nak lain? Eleiz-gizonak izan ezkero euzkel - idaztietatik zenbat izango geban orain?

(2) Gernika'ko Batzaren gia (1.613'ko lotazilak 10); "Euzkera aurera, erderaz irakurten eta eztakiana ezta batzar onetan ordezkari agirla ekari aren be

(1624'ko epalak 19): Arietaga'tar Yon batzaretatu zan, tertu ondoren, erderarik etzekiten si ebenean, batzaren sartzeko na ezeutsoen emon. Batzar ondoren tan, Ispaster'go Uriarte'tar Kepa, dika'ko Berteteaga'tar Kepa, Berango, Lemoniz, Gamiz, Elexabeitia ta Ubidea'ko ordezkariak be zio beragatik batzaren sartzeko ez eben izan.

¡Entzun, Ereño, a

Aberkide on begiko autanez entzun akidak, entzun gogo on Olerkari gorengo ikuste-aren, diñostazanak, entzun, Ereño. Argi egin induan i adimenez ta ameslari Jainkoak, dirudian Kanta akiok ba, kanta Jaun Abertsotan kanta amesak sarri Baño ire kantetan adigari eder-zale ta garbi izan adi. Egundo ez, azal ta melar-zale bein ere ez, gezur adabatzale Bakoitzari bere izena emanez txuri danari, txuria esanez. Iñoren uts-akatzak eskutuan norberenak lez gordeaz barru Muña, giara, egia itzetan, Euzkera erez-ereza bertsotan Jainkoa ta Aberia elburutzat ta Sabin ona ar itzak eredutzat

Lauaz

Uara.—Bergara-aldian zer zute? Guziak olerkari izateko Euzkera jator ta ederean idatzi ra oneik ere. Bialdu egiskuren batzuk, oneik ondo egiñak "Ereño" goraltzen dezu, baña ere. Jarai beza, eta ezpedi aten te uri aretara batzuk bialtzen

VII'gn. Olerti-Egun

Lekeitio'n Azkue'tar Aita-semen omenez

1936'NGO. GARAGARILAREN 28'AN

GUDURAKO ARTUTAKO OLERKIAK

LENENGO SAILA

(Edozein eretako olerkiak)

1. "Bizitza".
2. "Artzain onaren ardia".
3. "Giza-Adiñak".
4. "Ames-Urdin".
5. "Odol-dei".
6. "Maitasun-Gara".
7. "Belartxe".
8. "Aberiaren len semia".
9. "Artzubi'ko lertegia".
10. "Oroigaritzat".
11. "Belaundaria".
12. "Gurutzeak"
13. "Gabongaua sendian".
14. Lanaren saria".
15. "Mele dulcius".
16. "Agur, olerkari".
17. "Euzko-apaizgaiarena".
18. "Zori-gaizto".
19. "Egun-uratze".
20. "Euzko-mami".
21. "Jaiki, jaiki".
12. "Nere ametsa".
23. "Enadatxoa".
24. "Ama-semeak".
25. "Lora gorian".
26. "Jenare".
27. "Ipar-Itxastarena".
28. "Larazabal".
29. "Oiñaze-Legea".
30. "Maite-Oroiz".
31. "Gogo-erpiñetara".
32. "Irudi Bitxiak".
33. "Arats beran".
34. "Aberi zotiñak".
35. "Paultxu'ren Iribarena".
36. "Kepa gurenaren saspi bi

BIGAREN SAILA

(Euskal Poemak)

37. "Dabid'en abestiak".
38. "Jesus aurren bizitza".
39 "San Jurji".
40. "Maite-Miñez".
41. "Peria".
42. "Lizar'ko bidaztiarena".

IRUGAREN SAILAK

(Euskal-Olerki erikoi sortak)

43. "Jesusen nekaldia".
44. "Sasuetak".
45. "Eria kantari".
46. "Gauden beti euskeldun".
47. "Aitita malutakoren abestiak".
48. "Abeletxe'ren kanta zorotzak".
49 "Jomake'ren abestiak".

Garagarilako lenengo eguna.

EUSKALTZAIN

Ibarrangelua'ko Aberri Eguna'ri

¡EUZKERAZ BETI. EUZKERAZ!

Biribilketiak, jaupea, txistulari-eresija, aureskuba, sariketea, pelotakea, antzerkija, eta Aberi-Egunari joakan itzaldija ixan ziran uritxu onek aberi egunari opaldu eutsazan jayak.

BIRIBILKETIA

Goxian-goxetik entzun ziran txistu alayaren durundi berbiztuak iru margodun zuzirijan tanbadak lagun ebezala. Biribilketa onen deira apaindu ziran etxietako txeigo gustijak. Batzokija bere zirikodun ikurin barijakaz jantzi zan dotore eta egun-andi agirijan.

JAUPEA

Bederatzijetan jaupa ixiia, apala baña kistartasunaz ondotxu josija. Eriko abertzale gusti-gustijak zuzendu ziran utzik bape barik jaupa ixil onetara. Merikaetxebaria'tar Joseba eriko jauparijak emon eban jaupea, eta jaupa azkenian Emakume Abertzale-Batza 'ko taldetxu bateri emon eutsan geure Jauna.

AURESKUBA

Amaretako jaupa-nagusi ostean jantzaldu zan aureskuba. Arizabalaga'tar Ilarion atzezkuz, eta Abadia'tar Kerman aurezkuz ederto, be, ederto jantzaldu ziran. Oratiño gixon ezkendubik ekari eutsezan emakumiak, oñari bultzekada biribilak egitekolako gogua nabaitzekuak ziran.

TXISTU-KONTZIERTUA

Eriko txistulari eresbatzak emon euskun eresija txalogarija benetan. Aia iru semiak "atriien" aurian jariia ¡zelako eresi-zatijak jo euskubezan! Iragariia euken egitarautik kanpora, "Minuto de Monzon" jo eben, eta ¡zelan jo, be! Meresi ebezan txaluak entzun ziituben.

PELOTAKIA

Aratsaldian jokatu san pelota-jokaldi politia. Eriko Maximo ta Arizabalaga aurkestu ziran Bilbao'ko Elortza eta Zinkunegi'n aurka. Eriiarak irebasi eben bederatzi eskuraldijan aldiaz. Bilbo'tar Zinkunegi txapeldunak erakutsi euskun bere jakituri ta pelotari ereduba, bere laguna zaletsu egon zan baña utz askotxu egin ebazan. Ederto Arizabalaga atzian, eta zabal - zabal Maximo aureko laukijetan.

SARIKETEA

Au bai gauza edera. Batzokija "plen-plen" egola aureratu ziran euzkeraz irakurte-sariketan tokija artun biar eben neska-mutikotxubak.

Lenengo emakumiak egin eben, eta EUZKADI'ko "Gayak" bata beste Aberi-Eguna'tzaz idatziriko atalak irakuri ebezan, atal onekaz batera "Ekin" asterokuak argitalduban ume oneri egiñiko idazki berezija. Eiguren'dar Elixabete'k, irebazi eban neskatuan lenengo sarija. Urzuno'tar Pilare'k, bigarena, eta Uriarte'tar Miren Gotzone 'k irugarena. Saritzat txindi mordotxua eta "Miren'en Senargeya" deritxan Oar-Arteta jaunak argitalduriko idazki politia, emon yakezan. Bata beste euzkerazko idazki begiko batzuk.

Mutilan artian Zubieta'tar Bernarda'k, lenengua. Uriarte'tar Joseba Iñaki'k, bigarena. eta Uriarte'tar Geronima'k irugarena irebazi ebezan. Oneri, be, sari politak emon yakezan, idazkijetatik "Etxe-Kalte", "Arugain" euzkel-idazle jatorak euzkeralduriko idazkitxu begikua. Iru lenengo sari onetatik kanpora aurkestu ziran mutil gustijari emon jaken bakoitxari erialtxu bana.

ANTZERKI TA ITZALDIJA

Gabian Euzko-Batzoki'ko aretuan antzerki jai politia egin zan sareria duban dala. Lenengo txistularijak asijeria emon eutsen "Itxarkundia" erestuta. Ondoren bakotxa atal bateko iru antzerki antzeztu ziran. Antzezkija amatuta Arotegi'tar Modeste'k itzalditxu politia zuzendu eban Emakume Abertzale-Batza'ri eta Aberi-Eguna'ri opalduta.

Poz-pozik txalotu eben bere lagunak eta entzun eben gustijak. Azkenez Euzko-Abendaren Ereserkija.

O.

Autuka - mautuka

PRIETO'REN LARI-JAK!

Ecija'n jazo yakozanak egun batean kontautekuak eztira. Bere alderdikuak ixan ezpa-ziran, baña sosolistuak Prieto'ren aurka jagiko zirala, nori otuko yakon! Cordoba'ra i g e s -egin eban eta aldun batek itaundu eutson Prieto'ri:

—Ecija'tik Cordoba'ra aldi asko tardau zenduben ala?

—Betikotasuna e z t a ain luzia ixango-erantzun eutson Prieto'k. Ecija 'ko saspi umiak atzian etorzala, iduritu yatan.

C. N. T.'KUAK

Neskatil lirain bati egiten yakozan labankerijak egin daragoioez C. N. T.'ko mutikuai. Largo Caballero'k alde batetik: Zubek zarie mutilak! Eta "El Socialista„'k bestetik: Diabru-kumiak dirudixube

Bitartian, ostera, euzko-langilial eztautse laketzen lan-egiterik. Eri-zaletasuna eta auntzaren gaberdiko estula!

NEGUS ETA GORDOSOLA

—Zer egitera z u a z E n g l a n d - aldietara?, itaundu dautse Negus'i.

—Abisini'ren eskubidiak aldeztutera.

—Zenbat aldi egongo zara bertan?

—Biar dan beste aldijan.

—Abisini'ra b a r i z juango ete-zara?

—Lateri-Batza'k zuzentasuna egingo daulakuan nago.

Au entzutian, Negus en gordosolari edo aterkiñari begiratu dautsogu. Andijegitzat autu dogu.

ASARE

Bilbao'ko "El Pueblo Vasco" asaratu yaku. Eregiari kankalu dei-egin ei-dautsogu. Asaratu yaku. Baña "bazoquis de biribilqueta" eta abar geugatik idazten dauzanian, bare-egin daroia. Kankalu ta geyago idatzi biar - ixango dogu, dirudijanez idazten doguna erderatuten dabe-ta. Noiz - edo - noiz monarkiku oreik, be, euzkerea irakurten dabenian!

ZORUAK!

E c i j a'k o iskanbilak gora-bera. Gonzalez Peña'k erabagi on-ona artu dau. Beste bein ez ei-dau itzaldirik egingo. Baña Prieto'k geyago diño. Bilbao'ko osagile bati, Lopez Albo'ri itu-anduten dautso: Zoruak ez ete-gara "a esta masa de dementes" itz-egiten dautsogunok?

Ori abertzaliok idatzi ba genduban, zeruko ixarak be jausiko ziran. Prieto'k ezagututen dauz bere jaraitzaliak eta ori diñuanian...

ARKAKUXO

Egazkin arkakuxuak deritxonakin egaizkarik ezegiteko agindu dautse France'ko egazkindarijai. Olakorik! Emetiko arkakuxo edo ardijak ikotika galantak egiten dabez, b a ! Arkakuxo oreí ego barijak ipiñi biar ei-yakez. Ai enebada, ego-barik, be, naiko zeregiñik emoten dauskube, arkakuxuak, ba.

EMAKUMIOK!

Hollywood'eko emakumiak zoro-antzekuak dirala esan daroie. Ezkongayen batzokija egin d a b e eta araudije'an atalgi auxe ipiñi dabe: Aberats eta entzutetsubak ixango garan-artian ezkara ezkonduko. ¡Geyenak ezkongai geratuko diralakuan gagoz. Entzute ta dirubak gitxitan datorz alkarekin.

Bazkun oretatik batzuk aldenduko dira. Bijotzak aginduten dau. ez araudijak.